

1. FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Gure proposamena aurrera eramateko beharko dugun lehenengo gauza gure enpresaren webgunea da. Hau baliabide intelektuala izango litzateke, eta honen bidez gure bezeroak gurekin harremanetan jar daitezten eta harreman hau mantentzea lortuko dugu. Beraz, garrantzia handia emango diogu bezeroekin dugun harremanari eta horretarako guztiz aproposa izango da gure webgunea. Enpresako langile talde txiki batek webgunea eguneratzeko eta bezeroekin harremanetan egoteko ardura izango du.

Hainbat zeregin desberdin dituzten langileak egongo dira. Hasteko, esandako webgunearen arduradunak direnak. Gainera, kontuak daramaten langileak ere beharrezkoak izango dira. Horrez gain, arropa bidaltzearen ardura izango duten langileak ere beharko dira. Azkenik, harreman publikoen arduradun diren langileak ere beharko ditugu.

Beharko dugun hurrengo baliabidea lokal bat da, zein baliabide fisiko bat den. Hau gure enpresa aurrera eramateko beharrezkoa da, hor gordeko baititugu gure stock-eko produktuak. Hau da, erabiltzaileek bertara bidaliko dizkigute prendak eta guk bertatik kudeatuko ditugu diru-kontuak eta zer bidali behar dugun nora.

Horrez gain, gure bidalketak egiteko eta bezeroenak jasotzeko akordio bat beharko dugu *Genei* enpresarekin. Hau baliabide intelektuala da, eta enpresa hau beharrezkoa dugu bidalketak egin eta jasotzeko.

Beharrezkoa dugun finantza-baliabidea enpresaren bankuko kontua izango da, gure irabaziak hor gorde eta gero kudeatu ahal izateko. Horrez gain, *PayPal* edo *Bizumen* bidez jasoko dugu dirua. Horretarako bi hauek gure webgunean jarriko ditugu.

